

Joanes Leizarragaren Testamentu Berriaren euskarazko itzulpenak garrantzi bikoitza izan zuen. Alde batetik, Alemanian Martin Lutherrekin, Frantzian Jean Calvinekin eta beste leku askotan protestante askorekin gertatu zen bezala, Jainkoaren hitza herri-hizkuntzetara itzultzeak aparteko bultzada eman zien erabilera idatzi gutxiko mintzaira horiei, eta kasu batzuetan horiexen literaturaren abiapuntua ere izan zen. Gurean, erreformak porrot egin zuen arren, protestanteen proselitismoaren beldurrak katolikoak ere, -ordura arte euskara kontuan erabat arduragabeak-, gure hizkuntzan idaztera bultzatu zituela esan daiteke.

Baina aldi berean, Leizarragak, bere itzulpenarekin, euskara batzeko lehen ahalegin serioa egin zuen, hizkuntza-plangintza ongi pentsatuaz, eta Iparraldeko euskalkien gainetik euskaldun guztientzako literatur eredu bat proposatu zigun: “lengoajeaz den bezenbatean ahalik gehiena guzietara eraziteari jarreiki izan gatzaitza, eta ez xoil edozein lekhu jakineko lengoaje bereziri”, *ABC edo kristinoen instrukzioea* liburuxkaz, hau da, irakaskuntzarako lehen euskal material pedagogikoaz, nolabait, osatu nahi izan zuena.

Xabier Kintana